



ANDOINGO HIRIBUSAREN ZERBITZU BERRIAK UDAN

Andoaingo autobusak edo hiribusak ematen dituen zerbitzuak mantentzeko eta hobetzeko asmoz, Andoainen uztailan eta abuztuan eskuragarri egongo diren zerbitzu berriei buruzko informazioa ezagutzera ematen dugu.

1.- HIRIBUSA ABUZTUAN

Abuztu osoan urtean zehar dagoen **betiko zerbitzua** egongo da. Ohiko ordutegia eta geralekuak izango ditu.

Lanegunetan Leitzarango Olazar eta Otietako parkeetara joateko aukera egongo da hurrengo orduetan: 10:30 eta 11:30, goizez; 17:00 eta 18:00, arratsaldez.

Larunbatetan hilerrira joateko zerbitzua mantentzen da, baina autobusa ez da han zain geratuko Otietaraino joango delako ondorengo orduetan: 10:30, 11:30 eta 12:30, goizez, eta ondorengoak arratsaldez: 18:00, 19:00 eta 20:00. Larunbatetako zerbitzu hori uztailaren 27an hasiko da, iraila arte.

2. LEITZARANGO PARKEETARA JOATEKO UDAKO ZERBITZUA

Jaiegunetan ere parkeetara joateko aukera egongo da. Egun hauetan: Uztailak 25, 28 eta 31. Abuztuak 4, 11, 15, 18, 25. Irailak 1.

Ordutegi honekin: 11:00, 12:00, 13:00, 18:00, 19:00, 20:00.

Eta ibilaldia hau izango du: irteera Pio Baroja kaleko geltokitik, jaitsiera Karrikaraino, buelta Aiztondoko paradan egingo du eta hortik Zumeatik eta Kaleberritik berriro Leitzarango norabidea hartuko du.

3.- JAIETAN GAUXORI BUS ZERBITZUA

Etxeberrieta auzoko jaiak:

Uztailak 30: 00:00 - 3:30

Uztailak 31: 22:30 - 00:30

Irteera Aiztondo kaletik. Calonge auzoraino joan ahal izango da. Bidaiariek ibilbidean eskatzen duten tokietan geldituko da.

San Estebango jaiak (Goiburu):

Abuztuak 2: 00:00 - 4:00

Abuztuak 3: 00:00 - 4:00

Abuztuak 4: 22:00 - 00:30

Jai hauetan ere Calongeraino joateko aukera dago, baita eskatzen den tokietan gelditzeko aukera ere. Lehenengo irteera Zumea plazatik izango da, igotzeko ahalmena izateko.